

Anne Perez Rezola

A maila • 1 aipamena

Zuhaitzak lorez betetzen ari ziren, milaka kolorez janzten, eguzki epela zero urdinarekin jolasean zebilen eta elur malutak berriz desagertzen, negu gorria atzean utziz, oskarbi zein euri. Anne Perez Rezola nauzue eta udaberriko egun alai batean jaio nintzen, 2003ko apirilaren 16ean zehazki, txorien kantu amaigabeekin sintonian. Txiki-txikitatik Beasaingo La Salle eskolan ikasi izan dut, baina orain Txindoki institutuan nabil batxilergoko azken urtea burutzen.



Nahiz eta idazteko joera handirik ez izan, papera eta arkatza esku artean ditudan bakoitzean asko disfrutatzen dut, egunerokotasunetik deskonektatzeko eta beste mundu zein galaxietan barrena bidaiatzeko aukera ezinhobea iruditzen baitzait bakoitzaren burutazioak orri zuri batean plasmatea. Beraz, poz handia hartu nuen aipamen saria irabazi nuela jakinarazi zidatenean eta idazten jarraitzeko gogoa piztu dit. Besterik gabe gustatuko zaizuelakoan...

BIHAR

1956ko martxoaren 28a

Leiho zirrikitutik logelara sartzen diren eguzki izpi epelek nire masaila laztantzen dutela esnatu naiz, txorien txio alai eta atseginak melodia errepikakor eta amaitezin bat kantatzen dutela behin eta berriz, pausagunerik gabe. Nire belarrientzat espresuki eginiko musika-noten konbinaketaren emaitza dirudi, eta horrela ez bada ere, pentsamendu horrek nolabaiteko poztasuna sorrarazten dit bihotzean. Pixkanaka begiak zabaldu ditut eta bart amestutakoa gogoratzeko hamaika ahalegin egin ondoren, amore eman dut. Hemeretzi udaberri eta gezurra dirudi oraindik amets bat bera ere bi segundotan baino gehiagotan nire memorian gordetzea lortu ez izana... Eguraldiarekin bateratu nahian, amaren gaztea zeneko soineko loredun bat janztea erabaki dut, "Soineko Magikoa" bere esanetan, ipintzen zuen bakoitzean zorte ona baitzen nagusi bere inguruan.

Ostiral arratsaldero bezala, portura joan naiz amaierarik ez duen likidozko eremu zabala begizatzerara, ilunabarraren esperoan, eta bertan ikusi zaitut, estreinakoz, larruzko jaka soinean eta zigarroa bi hatzen laguntzaz kontu handiz heltzen duzula, itsututa utzi nauen xarma bereziarekin. Une batez, Vespa zuria zaldia dela pentsatu dut, eta zu printzesa ederra erreskatatzera datorren printze urdin eta ausarta. Gure begiradak nahi izan gabe gurutzatu dira, denbora luzez elkarren atzetik ibiliko balira bezala, eta zure begiek, nire begietan itxaropena aurkitu dute; galdu egin dira berde koloreko bi puxtarrietan eta ez dute irtenbidea aurkitzeko intentziorik, bertan babesean baitaude. Nik ordea, tximeletak nabari ditut sabelean, biraka eta

biraka, alde batetik bestera dantza-saio bat egiten arituko balira bezala, nire barnetik atera nahian, zorabiatuta, noraezean. Cupidok bete-betea eman dit geziarekin, loti ederra esnatu da. Zu, eta zure James Dean-en begirada hipnotizatzaile eta distiratsua eta ni, horrenbeste gustatzen zaizun irribarre alai eta ezpain gorriekin, banoa, bidaiariaren eserlekuan, besoekin estu besarkatzen zaitudala badaezpada ere inoiz alde egin ez dezazun, zure erreinurantz, betiko nahi baizaitut. Hollywood-eko film bateko protagonista nagusiak, zu eta ni, bi maitale gazte eta zoro, Bonnie eta Clyde, baina geure erara badakizu, bata bestearengatik edozer egiteko eta emateko prest.

1981ko urtarrilaren 12a

Begien itxi-ireki batean hogeita bost urte igaro ditugu Lur planeta eta Ilargiaren antzera elkarri biraka, izar argitsuenen pare, gure mugimendu sinkronizatuarekin konstelazio paregabe eta pertsonalizatuak eratuz, zu eta ni lotzen gaituen urrezko lokarri ikusezin bat egongo balitz bezala, sendoa bezain puskaezina. Hogeita bost urte bizitza den errusiar mendi honetara nirekin batera igotzea erabaki zenuenetik, gorabehera gazi-gozo guztiei aurre eginez, baina beti elkarrekin. Ni zure protoia eta zu, berriz, nire elektroia eta bion fusioa karga elektrikorik indartsuena, amodiozko istorio sutu eta suntsiezinaren produktua. Biok bata bestearen osagai ordezkazekin, udako bi larrosa miresgarri.

Hala eta guztiz ere, gaur, bestelako ideiak dabilta nire barnean eta biok eraiki dugun mundu perfektu hau inoiz pikutara joango delako pentsamendu zentzugabe eta ergela izan dut; nork daki zergatik. Gaur, neguko egun hotz eta ilun honetan, kaleak arima galduen pasealeku bihurtu diren egun honetan, atximurka egin diot neure ezkerreko besoari eta nire bizitza irudimenak eraiki duen ipuinetako istorio utopiko zein maitasunezko fantasia idealizatu bat izango ez ote den pentsatu dut, eta kolore eta harmoniaz bete ditugun paper zuriak, hots, gure harreman magikoak amaiera garrantza izango ez ote duen beldur naiz. Ikara diot eguzkilorez estali dugun ametsetako zelai hau amapola purpura eta ustel bilakatzeari, ikara zu ez zauden mundu bat imajinatze hutsari.

1986ko urtarrilaren 12a

Ispilua omen da gizakiaren egiazko etsaia, ez baitu zoritxarrez gutako bakoitzak hain ondo gordeta duen altxor preziatua erakusten, azalean geratzen baita. Zuk, ordea, lehen segundotik jarri zenion arreta nire altxorrari. Aspaldiko partez, ispiluaren aurrean jarri eta denboraren jarioarekin batera inor ez dela zahartzetik libratzen ohartu naiz, zure ondoan beti gazte sentituta, bi arima libreraren gisan, erabat ahaztua bainuen. Garai haietara itzultzeagatik egingo nukeena adierazteko hitz egokiak existituko balira...

Une batez ez naiz nire isla ezagutzeko gai izan. Pertsona ezezagun baten gorputzean harrapatutik egongo banintz bezala izan da, aurrera eta atzera laberintutik nola irten jakin ezinda, galduta, nahastuta. Ez dut neure burua ezagutu eta ez dut nire izena gogoratzen. Hori gutxi balitz bezala, nire odola paniko dosi txikiak bihotzera garraiatzen ari dela jabetu naiz zure izena ahoskatzea ere lortu ez dudanean. Saiatu naiz, baita birsaiatu ere, baina alferrik, nire burua matxuratu egin dela dirudi, Kaliforniara egin genuen eztei-bidaian zure Vespa-ren atzeko gorpila zulatu zen moduan, nire burua ere zulo txiki eta sakonez betetzen hasia dela

ematen du. Paniko dosiak ziztu bizian abiatu dira organo ponpatzailetik garunerantz eta zati bat lokartu dute minutu pare batez. Nire bizitzako minutu luze eta beldurgarrienak, baita zureak ere. Nola liteke bada mundu honetan gehien miresten dudan pertsonaren izena ahaztea? Nola da posible minutu batzuen joan-etorrian nork bere burua ez ezagutzea? Zer gertatzen zait? Oraingoan printzearen musua nahikoa izango ote da loti ederra esnatzeko?

Ez dut ezer ulertzen, baina zuk bai. Zure begien urdin kolore distiratsua itzaltzen doa pixkanaka, nolabait beren dirdira galtzen, desagertzen... Begirada goibel hori nahikoa izan da zerbait oker dagoela ohartzeko. Zure begiek garrasika hitz egin dute, ahoa ireki beharrik izan gabe, eta argi eta garbi ulertu dut dena. Beranduago iritsiko zela uste nuen, atea joko zuela beharbada nire garunera sartzeko baimena eskatuz eta ez zitzaiola itxarotea axolako. Abisatu gabe iritsi da ordea, ustekabea. Tuntuna ni, ipuinetako amaiera zoriontsuak errealitatearen pare direla uste izanagatik...

Iritsi da gaitza eta nire ama eraman zuen bezalaxe eramango nau ni ere. Azken zurrupadaraino xurgatuko nau eta ni naizena deuseztatu egingo da. Bizi ditugun abentura guztiak, egia bihurtutako ametsak, akabo. Nire memoria hustu, airean desegin, hauts bihurtu, eta gauza ahantziek gobernatzen duten mundu baterantz eramango du, hemendik urruti.

1988ko urriaren 10a

Espero bezalaxe, nire gaitza maldan behera joan zen hurrengo hilabeteetan, sekulako abiaduran, ekarriko zituen ondorio lazgarriak geureganatzeko denborarik izan gabe. Aitortu ez banizun ere, asteartean, tren geltokira iritsitakoan ohartu nintzen azokara joatekoa nintzela eta atzo etxerako bidea ere ahaztu zitzaidan. Herria punta batetik bestera miatu nuen ero baten gisan eta oraindik ere non bizi naizen gogoratzen ez nuenez, auzoko gizon bati galdetu behar izan nion. Horregatik iritsi nintzen hamarrak jota, nahiz eta zuri, kezkatu ez zintezan, Amaiaren etxean nengoela esan nizun. Inoiz baino maizago gertatzen zaizkit orain horrelakoak; denbora baterako nire gorputza estralurtar moduko baten kontrolpean geratzen da eta nire buruaren funtzionamendua eteten du, memoriaren botoia sakatu eta itzali, kable guztiak deskonektatu. Gauza gutxi batzuk gogoratzeko geratzen zitzaidan gaitasun apur hori tsunami batek birrindu du jada, eta nire izaera Euskal Herriko eguraldiaren antzera aldatzen da. Batzuetan pozez zoratzen eta hamar minutura inolako motiborik gabe zuri garrasika. Nori eta nire eskua inoiz askatu ez duenari.

Dena den, zuk borrokan jarraitzeko indarra eman didazun arren, nekatuta nago jada, bizitzen jarraitzeko gogorik gabe, erabat indargabetuta. Pixkanaka-pixkanaka beste pertsona batez mozorrotzen ari naiz eta ezin dut gehiago, ahaleginduta ere gaixotasun honek ez dit ni naizena azaleratzen uzten. Aspaldi egin zuen ihes nire altxor txikiak eta beste baten menpe geratu da. Zuretzat ere bidaia desatsegin hau zein gogorra izan den jabetzen naiz, noski. Ez dakit nola izan zaren nire garrasi, umore aldaketa eta beheraldi guztiak jasateko gauza. Benetan miresten dut erakutsi duzun adore eta ausardia hori. Zu miresten zaitut zure osotasunean. Bizia zor dizut eta eskerrik asko bat ematea besterik ez dut.

Zoritxarrez, bolalumaren tinta xahutzen ari da eta margotu dugun koadroari ere azken pintzelakadak soilik falta zaizkio, azken ikutuak. Amaiera gero eta gertuago sumatzen dut, eta

PROSA

agian, bihar zure ondoan esnatzen dena ni izango ez naizenez, merezi duzun azken agurra eman nahi dizut berandu izan baino lehen, loti ederra betiko lo geratu aurretik.

Martin maitea:

Joan-etorriko bidaia hauetan gero eta denbora gehiago igarotzen dut bestaldean eta horietako batean, nork daki? Inoiz itzuliko ez naizen beldur naiz, bertan preso geratuko naizen beldur.

Bihar gertatzen zaidana ulertzeko gauza ez banaiz... Bihar zurekiko dudan miresmena adierazteko aukerarik ez badut..., zenbat balio duzun aitortzeko kapaza ez banaiz... Nire aurpegian gaztetako irribarrea marrazteko duzun gaitasun berdingabe hori, zure begien itsasoan murgildu eta une batez gaixotasuna desagertu dela sentiarazteko duzun abilezia boteretsua...

Bihar egiten duzunaz kontziente ez banaiz... Ate guztietan pepertxoak ipintzen dituzunean, komuna eta sukaldea nahas ez ditzadan; galtzerdirik gabe zapatak jantzi arren biok lurrean barre-algaraka amaitzea lortzen duzunean; elkarrizketa bat aurrera eramateko milioika saiakera egiten dituzunean, nahiz eta esaldi bakoitzean galtzen naizela badakizun; disimuloan nigana gerturatu eta belarrira hitz polit eta eztitsuak xuxurlatzen dizkidazunean; ditudan haserre eta amorrualdiei samurtasunez erantzuten diezunean, kondenatuta nagoen patuari zerbaitek aurka egingo nahi balio bezala. Honengatik eta beste hainbat gauzagatik.

Gure bizitza suziri baten modukoa izan da. Biok zerura jaurti gintuzten eta puntu gorenera iristean leherketa bat gertatu zen, bihotzezko emotikonoz eta ilusioz betetako leherketa.

Baina, suzirien arrastoak uretan desagertzen diren bezala, oraingoan ni izango naiz lehena desagertzen, bakearen erreinurako bidea hartzen.

Bihar zure izena edo nirea oroitzen ez baditut... Bihar eskerrik asko esan ezingo badizut... Bihar, Martin, azkeneko aldia izango bada ere maite zaitudala esan ezingo badut...

Zurea, betiko.

Edurne